# El futuro en nuestras manos



## MEMORIA 2009

MMDDVV

elizbarrutietako misioak
misiones diocesanas vascas









# COOPERACIÓN ENTRE IGLESIAS

**En el contexto de crisis a nivel mundial, en los países del Sur, en concreto en Angola y Ecuador, donde está el Grupo Misionero Vasco, sufren una crisis permanente que ahora se recrudece y golpea cada vez a más personas y familias. Ahí, siguen y quieren seguir los misioneros y misioneras compartiendo la fe y la esperanza con los excluidos de este mundo.**

## ECUADOR

El pasado 2009 ha estado marcado por la reflexión acerca del futuro de misiones, a partir del documento de los obispos del País Vasco: "Misiones diocesanas en Ecuador. Plan 2008". Actualmente seguimos trabajando en las siete parroquias encomendadas en el Oro y en Los Ríos.

Durante este año se ha trabajado con mayor hincapié en el proceso de apropiación que están llevando las comunidades eclesiales de base, grupos parroquiales, catequistas..., tanto de las labores pastorales como de los proyectos de desarrollo, siendo sujetos activos de su propio proceso.

Tras la asamblea de octubre, los misioneros y misioneras de Ecuador han reforzado las opciones fundamentales desde las que están dispuestos a continuar: opción por los más pobres y por las Comunidades Eclesiales de Base; vida y trabajo en equipo; cercanía, territorialidad y coordinación con los planes pastorales diocesanos. En dicha asamblea, Javi Martínez de Bujanda era nombrado por el Obispo delegado, nuevo coordinador del Grupo Vasco hasta 2011, sustituyendo a José Mari Garmendia.

## ANGOLA

Nuestros misioneros han vivido un año de definición de la misión diocesana en Luanda. A ello ha contribuido la visita de los obispos D. Miguel y D. Mario en el mes de julio. Con los misioneros, las religiosas y las comunidades parroquiales, han podido acordar los pasos que es necesario dar de cara al futuro: la primera decisión consistió en el cierre del Centro de Formación Profesional que ha funcionado durante 15 años sin ningún apoyo estatal, razón principal de su clausura. A medio y largo plazo, se prevén otras medidas relacionadas con la reducción de cargas económicas, el aumento de la autonomía parroquial y la apertura del equipo misionero a seminaristas y sacerdotes jóvenes de la nueva diócesis de Viana, a la que ahora pertenecemos por segregación de la archidiócesis de Luanda.

## EUSKADI

Si nos propusiéramos definir el año 2009 en una sola palabra, desde muchos puntos de vista se podría concretar como un "año de aniversarios" ya que se ha concluido la celebración de los 60 años de Misiones Diocesanas y también se han celebrado los 50 años de Misiones Diocesanas en África. Después de mirar hacia atrás y ver los logros conseguidos y los errores cometidos, es momento de mirar hacia delante con esperanza y con fe.



Durante este año queremos señalar también el cambio de sede de la Delegación de Misiones de Bilbao que ahora se encuentra en el Edificio Barría, en la Plaza Nueva nº 4 entreplanta. El resto de datos de contacto se mantiene igual.

## CAMPAÑA DE SAN JOSÉ 2009 Y VOCES DEL SUR

"HAY FUTURO, ESTÁ EN NUESTRAS MANOS. GEROA GURE ESKU DAGO". El lema del año pasado nos invitó a la esperanza, enmarcada en la celebración de los 60 años de Misiones Diocesanas Vascas con la participación interdiocesana de los grupos de misiones. En este encuentro, celebrado el 7 de marzo de 2009 en el Seminario Diocesano de Vitoria, se marcaron objetivos y líneas de futuro de cara a la continuidad de nuestras Misiones Diocesanas Vascas.

Durante el mes de marzo hemos compartido la presencia, el ser y estar de las Voces del Sur. Han dado a conocer el trabajo que realizan en sus comunidades. Han motivado a los grupos que siguen animados apoyando proyectos de solidaridad. Han removido, cuestionado y ayudado a comprender la importancia de la comunidad.

Su testimonio nos anima a seguir construyendo Iglesia-comunidad aquí, formando grupos que compartan fe y vida; comunidad abierta, acogedora y participativa; seguir la guía de la Palabra de Dios; abiertos a los pobres de allí y de aquí; coordinarnos entre las comunidades y grupos tanto de allí como de aquí.

En las diócesis de Bilbao y San Sebastián se decidió realizar una reflexión respecto a la acogida de las Voces del Sur y este año no contaron con su presencia. Este año sólo pudieron venir las Voces del Sur de Ecuador.

## HERMANAMIENTOS

Seguimos en este camino de Solidaridad y Hermanamiento, atentos a las necesidades de aquí y de allí. Seguimos enviando desde nuestras comunidades personas que hacen de enlaces. Este año han participado de la misión miembros del grupo de misiones de Sansomendi en Huaquillas; de la Llanada Alavesa, de la Ikastola Begoñazpi y de la Escuela Diocesana de Magisterio de Bilbao, en Palenque y de Ibarrekolanda-Bilbao, en Arenillas. También se ha mantenido el apoyo profesional a la cooperativa de ahorro y crédito del Cafetal.

## EXPERIENCIAS DE VERANO

Las experiencias de verano son bastante numerosas y suponen un gran impulso para la animación misionera tanto de jóvenes como de adultos. Todas las personas realizan previamente la formación que se les propone en cada delegación, en Bizkaia y Álava, el curso Norte – Sur y en Gipuzkoa el curso de Cooperación y Desarrollo.

En total han participado en estas experiencias de verano 11 personas de Bizkaia (en Chimborazo y Los Ríos – Ecuador), 6 de Álava (Los Ríos, Chimborazo y El Oro – Ecuador) y 12 de Gipuzkoa (6 de ellos en Ecuador). Ha habido gran variedad de actividades: misión, apoyo al inicio de grupos de jóvenes, colaboración en la unidad educativa popular, apoyo escolar... Destacamos las vinculaciones a Misiones que se establecen tras esta experiencia de verano: voluntarios, Kidenda, equipo de sensibilización, mesa de acompañantes, refuerzo a los grupos de misiones y a la animación misionera parroquial.











# ANIMACIÓN MISIONERA

## GRUPOS DE MISIONES

Se siguen coordinando desde las delegaciones de Misiones. Durante este año cabe destacar el encuentro del 7 de marzo que fue un punto de partida para avanzar hacia una mayor coordinación de los grupos de misiones y de solidaridad a nivel diocesano e interdiocesano. El resumen del encuentro se devolvió a los grupos, con sus objetivos y metodología. El objetivo general es: **"facilitar el nacimiento de una coordinación, organismo interdiocesano de coordinación, que forme parte de la iglesia y que cuente con pequeñas comunidades solidarias".**

Un segundo paso, se ha quedado en un encuentro interdiocesano en Urkiola para el 27 de Febrero de 2010.

En Bizkaia es importante destacar que, aprovechando la visita de Carlos y Ligia se hizo un encuentro con las personas que habían participado de las experiencias de verano y misión en Ecuador. Se ha formado un grupo animados en este proceso de misión. También se creó un grupo de biosalud, a partir del taller impartido por Ligia. Ambos grupos continúan reuniéndose.

En Gipuzkoa algunos grupos se van debilitando por lo que desde la animación misionera tratamos de fortalecer las coordinaciones interparroquiales o zonales como es el caso de Egia, Lasarte, Ordizia, Zumarraga. Por otro lado, en coordinación con el secretariado diocesano de infancia el 28 de marzo se organizó el encuentro de infancia misionera en Urnieta en el que participaron unos 500 niños y niñas.

En Álava queremos destacar el nuevo Plan Diocesano de Evangelización con el que se pretende "Renovar evangélicamente nuestras comunidades cristianas". Este plan nos ha empezado ya a guiar este curso y lo seguirá haciendo en los próximos años. Consideramos que los grupos de misiones tienen mucho que aportar al mismo.

## FORMACIÓN

En Álava han participado 6 personas en el curso Norte-Sur. Quincenalmente se reúne un grupo de formación permanente al que denominamos "grupo misionero" y que está integrado por personas que otros años han hecho el curso Norte-Sur, colaboran activamente como voluntarios con Misiones. La mayoría tiene compromisos parroquiales propios. Destacamos también la formación específica con María Jesús Olarte, a finales del curso (octubre), que fue enviada para la misión de Arenillas en Ecuador.

En Bilbao, como cuestión novedosa este año, destacamos el proceso seguido en la última etapa de formación para los futuros misioneros.

Tanto el diseño de la formación, como los contenidos, la metodología y acompañantes fueron consensuados gracias al acuerdo marco realizado entre Misiones Diocesanas y el Instituto Diocesano de Teología y Pastoral de la diócesis de Bilbao. Un año más se puso en marcha el curso Norte-Sur con 8 personas y en la Escuela diocesana de Magisterio en torno a 20 personas. También continuamos con el acompañamiento al equipo de educación para el desarrollo en el movimiento Euskalerriko Eskautak.

En Gipuzkoa, en coordinación con otras organizaciones, se ha ofertado el curso Cooperación y Desarrollo en el que han participado 21 personas. El curso se ha impartido en los primeros meses del año (enero-marzo del 2009).



## PUBLICACIONES

- “Los pobres nos evangelizan”. Libro donde se recogen testimonios sobre la memoria de Iñaki Cámara.
- “África más cerca”. DVD con más de 1.200 fotos de Rwanda y Congo. Juan Ramón Etxebarria
- “Documentos del encuentro conmemorativo de los 60 años de Misiones Diocesanas Vascas”

## REVISTA LOS RÍOS

En el año 2009 se han publicado los números: 227, 228, 229, 230. Recogen el caminar de misiones: la celebración de los 60 años de misiones y 50 años en África; tendiendo puentes entre las encrucijadas de África, Latinoamérica y País Vasco; miradas al mundo; diálogos con gente corriente; temas de interés como la inmigración y experiencias de cooperación, entre otros.

Resaltar las sugerencias que nos han remitido lectores de la revista respondiendo a la encuesta que les enviamos, con el objetivo de actualizar y acercarla más a la realidad. Gracias una vez más por la colaboración.

## PAGINA WEB

El 1º de mayo se inauguró la nueva página web: www.misioak.org que nos permite dar actualidad a nuestras noticias, abrirnos a otros sectores y compromisos.

## URKIOLA

Centro de la interdiocesaneidad de nuestras misiones, sede del encuentro anual de misioneros del primero de mayo, lugar de reunión de los encargados de las tres procuras y visita obligada de personas que regresan y parten de Ecuador y Angola.

La gestión de la casa “Lagunetxe” se ha cedido a una empresa que ha obligado a trasladar el archivo de Misiones Diocesanas Vascas al archivo diocesano de Vitoria. Durante este año se ha concluido un trabajo de sistematización y digitalización de todos sus documentos que acercará la historia viva de las misiones a toda persona que quiera conocerla.











# COMPROMISOS SOLIDARIOS

## COMERCIO JUSTO

En Gipuzkoa el Comercio Justo se ha asumido como apuesta de trabajo en diversos grupos del territorio.

En Vitoria se ha seguido participando como delegación de misiones en el consorcio que organiza el día internacional de las tiendas de comercio justo. Esta jornada se lleva adelante en distintas localidades de la provincia y tiene como fin la promoción del comercio justo y el consumo responsable, recalcando un aspecto concreto, que en 2009 fue la ecología y la crisis bajo el lema "Bing bang golpea por el comercio justo".

En Bizkaia el proyecto Kidenda formado por Cáritas, Alboan y Misiones, sigue trabajando por lograr unas relaciones de igualdad entre el Norte y el Sur. Este proyecto sigue siendo un espacio de compromiso entre los jóvenes y adultos que engancha y multiplica.

## BANCA ÉTICA

Desde Misiones Diocesanas Vascas seguimos apoyando este proyecto siendo socios fundadores y potenciando en cada territorio su divulgación, sensibilización y participación. En Gipuzkoa, desde la comisión diocesana y aprovechando la red de grupos de misiones, se han impartido charlas por todo el territorio. A partir del mes de septiembre se abrió en Ordizia una sucursal que atiende una vez a la semana.

## COORDINADORA DE ONGD

Durante el pasado año se siguió participando en la Coordinadora de ONGD en los tres territorios. En especial dentro de las actividades de sensibilización de la Campaña Pobreza Cero que se organizan alrededor del día internacional para la erradicación de la pobreza, el 17 de octubre.

Resaltamos también que Misiones Diocesanas en Vitoria ha asumido el cargo de Delegada de Álava de la Coordinadora de ONGD durante el próximo año y medio.

## GRUPO PRO-ÁFRICA

Como Misiones hemos seguido participando en las reuniones del Grupo Pro-África, consorcio de ONGD de Euskal Herria, con un interés común por África, que sigue creciendo en confianza y en estructura. Durante el año pasado se establecieron grupos de trabajo y se apoyaron actividades concretas de conocimiento del continente africano.

## SEMANA SOBRE ÁFRICA

Por tercer año consecutivo, hemos participado en la semana sobre África organizada por el centro Baketik y la Fundación TAU. Se celebró los días 8 al 13 de junio en Arantzazu y se discutieron las contradicciones y alternativas de solidaridad con África mediante la propuesta **Afrikandugu** para promover y compartir la figura de los hermanamientos cooperativos..

## IINMIGRACIÓN

La Delegación de Misiones de Álava está participando en una comisión de apoyo al Secretariado de Migraciones. Algunos grupos de misiones han asumido esta realidad como formación y compromiso y han participado en las actividades organizadas por el Secretariado de Migraciones.





# MISIONEROS Y MISIONERAS EN ACTIVO DURANTE 2009

## ANGOLA

Andoni Illarramendi y Luís Fernando Corcuera (Luanda), Luís Mª y Carlos Pérez de Onraita (Malange)

## CONGO

Xabier Goikouria

## ECUADOR

María Ángeles Domercq (Guayaquil), Estíbaliz Izagirre (Riobamba), Mireya Lekerikabeaskoa, Josu López Villalba y María Jesús Olarte (Arenillas), Pilar Gauna, Elena Fernández del Castillo y Joaquín Rodríguez (Huaquillas), José Mari Garmendia, Virginia Ortiz de Barrón y Gotzon Pérez de Mendiola (Santa Rosa), Eduardo Aguirre y Antonio Madinabeitia (Cafetal-Babahoyo), Teresa Dacosta y Benjamín Respaldiza (Palenque), Germán Alzueta y Martín Areta (Vinces), Javier Martínez de Bujanda, Izaskun Azurmendi y Paulino Ordax ( Baba).









# ECUADOR | informe

| PROYECTO | APORTE | DONANTES |
|---|---|---|
| **BABA** | | |
| Ampliación de la Piladora | 10.500,00 | Ibarratik Misio taldea |
| Cerramiento del Centro de acopio | 6.000,00 | VI, S.A. de Bizkaia |
| Cooperativa COAC | 2.000,00 | Pobes (Álava) |
| "Pueblo Solidario" | 5.702,38 | MMDD |
| **PALENQUE** | | |
| Apoyo a la producción y conservación del estero Maculillo | 3.185,00<br>15.200,00 | Grupo de Referencia Zaramaga (Vitoria)<br>Zona Llanada (Álava) |
| Escuela Profesional – Aprendizaje de Oficios | 7.533,00<br>4.250,00 | Unidad Pastoral Olarizu (Vi)<br>Grupo de mujeres de Artziniega (Alava) |
| Escuela Fátima | 5.000,00<br>1.445,00<br>3.000,00 | Ikastola Begoñazpi (Bilbao)<br>San Pedro parroquia (Deustu)<br>Andra Mari parroquia (Durango) |
| Construcción de Pozos | 30.000,00 | Parroquia de Begoña (Bi) |
| Desarrollo Local | 18.550,00 | Particulares (Bilbao) |
| Promotores de Salud | 4.000,00 | Lagunkide de Arrigorriaga (Bi) |
| Hospital Manuel Sesma | 46.500,00 | Ayuntamiento de Zarautz |
| **VINCES** | | |
| Ecógrafo | 24.000,00 | Ayuntamiento de Zarautz |
| Centro rehabilitación | 821,34 | MMDDVV |
| Becas Escolares | 1.247,79 | MMDDVV |
| Apoyo a profesores | 4.741,59 | MMDDVV |
| **MATA DE CACAO** | | |
| Madres embarazadas y niños desnutridos | 1.500,00<br>3.565,00<br>1.420,00 | Parroquias de Zigoitia (Ál)<br>Parroquia Santa Teresa (Vi)<br>Parroquias de Amurrio (Ál) |
| Comedor y Centro para discapacitados | 2.370,00<br>700,00 | Parroquias de Laudio (Álava)<br>Parroquia de Agurain (Ál) |
| Cooperativa de Ahorro y Crédito | 4.820,00 | Particulares (Bilbao) |

8

| PROYECTO | APORTE |
|---|---|
| **EL CAFETAL** | |
| Educación y Becas | 6.060,81 |
| FUNIQUE – niños especiales y niños en riesgo | 6.000,00<br>704,75<br>4.401,00 |
| Renovación Vivienda | 2.541,79 |
| **LA VENUS** | |
| Capacitación y formación de la mujer | 2.167,00 |
| Apoyo a actividades en la cárcel | 770,24 |
| Apadrinamientos | 17.085,00 |
| **BABAHOYO** | |
| Educación y atención en salud | 6.489,26 |
| Apoyo a actividades en la cárcel | 2.310,71 |
| Apoyo a Caritas | 3.837,79 |
| Apoyo a Seminaristas | 3.025,00 |
| Derechos Humanos | 4.763,36 |
| **QUEVEDO** | |
| Escuela Fátima | 7.800,00 |
| Dispensario | 3.000,00 |





| DONANTES |
|---|
| |
| Ayuntamiento de Lantarón |
| Bizian Gora de Bilbao<br>Par. Ntra. Sra. del Rosario (Bi)<br>MMDDVV |
| MMDDVV |
| |
| MMDDVV |
| MMDDVV |
| Parroquias de Sgda Familia, Salinillas de Buradón y Agurain (Álava) |
| |
| MMDDVV |
| MMDDVV |
| Caritas de Vitoria |
| Par. San Nicolás de Algorta (Bi) |
| Ayuntamiento de Ermua |
| |
| Grupo de Misiones de la Parroquia de Begoña y Particulares (Bilbao) |
| Grupo de Misiones de la Parroquia de Begoña (Bi) |

| PROYECTO | APORTE | DONANTES |
|---|---|---|
| **GUAYAQUIL** | | |
| Hospital A.E.I. | 6.790,70 | Grupo de Misiones de la Parroquia Santos Juanes (Bi) |
| **SANTA ROSA** | | |
| Becas de estudios para niños y niñas | 8.794,86 | Caritas Vitoria |
| Acceso y mejora de la vivienda | 5.585,27 | Parroquias de Amurrio (Ál) |
| | 1.095,00 | Particulares (Vitoria) |
| Formación promotoras de botiquines | 1.264,73 | MMDDVV |
| **HUAQUILLAS** | | |
| Apoyo a Medicina Natural | 770,24 | MMDDVV |
| Casa Comunitaria | 3.800,00 | Par. de la Coronación (Vi) |
| **ARENILLAS** | | |
| Desarrollo Local | 8.600,00 | Par. Karrantza y part. Bilbao |
| | 751,80 | Ayto. y Parroquia Armiñón |
| **PACCHA** | | |
| Apoyo a la parroquia | 2.000,00 | Parroquia San Pío X (Gi) |
| **MANABÍ** | | |
| Caráquez - S. Vicente | 14.000,00 | Par. San Vicente de Abando |



# ANGOLA informe

| PROYECTO | APORTE | DONANTES |
|---|---|---|
| **LUANDA** | | |
| Atención Prim. – Cáritas | 13.555,15<br>15.172,79 | Cáritas Vitoria<br>MMDDVV |
| Grupo GAM de SIDA | 4.600,03 | Parroquia Desamparados (Vi) |
| Becas Universitarias | 9.556,73 | MMDDVV |
| Becas de Estudio<br>“Santa Marta” | 5.650,00<br>9.000,00<br>300,00<br>2.141,00<br>500,00<br>2.000,00<br>3225,00<br>4.385,00<br>39.376,71 | Parroquias de Rioja Alavesa<br>Parroquia Sgda Familia (Vi)<br>Udako Iturriak<br>Electra Vitoria S. A.<br>Obra Social “La Caixa”<br>Parroquia de la Peña (Bi)<br>Particulares Vitoria<br>Parroquia Nazareth (Portugalete)<br>MMDDVV |
| Vocaciones | 2.500,00<br>2.000,00<br><br>1.858,00 | Particular (Vitoria)<br>Grupo de Misiones<br>de Begoña (Bilbao)<br>Particulares (Bilbao |
| Biblioteca 5ª Avenida | 23.626,03 | MMDDVV |
| **MALANJE** | | |
| Cáritas Malanje | 922,50 | Cáritas Vitoria |



# RWANDA informe

| PROYECTO | APORTE | DONANTES |
|---|---|---|
| Traída de aguas | 2.072,13 | Aytos. de Lazkao y Zarautz |
| Maternidad de Gihara | 1.800,00 | Particulares (Gipuzkoa) |
| Ctro. Nutricional Gihara,<br>Kayenzi y Mugina | 27.000,00 | Particulares (Gipuzkoa) |
| Escuelas de Gihara<br>y Kiguese | 33.349,00<br>11.600,00 | Ayuntamiento de Lazkao<br>Par. Itzasondo y particular (Gi) |
| Apoyo a huerfanos | 5.250,00 | Particulares (Gipuzkoa) |

# R.D. CONGO informe

| PROYECTO | APORTE | DONANTES |
|---|---|---|
| Bunkeya | 6.000,00 | Par. S Vicente Abando (Bi) |
| P. Likasi y MV. Katanga | 30.000,00 | Ayuntamiento Erandio (Bi |
| Xabier Goikuria | 15.598,00 | Ayuntamiento de Arakaldo<br>y Particulares (Bilbao) |
| Minusválidos de Kananga | 1.100,00 | Parroquia de Santurtzi (Bi) |
| Likasi | 7.666,00 | Parroquias de El Salvador<br>y San Fernando de Bilbao |
| Mufunga | 2.667,00 | Parroquias de Arangoiti<br>y San Fernando de Bilbao |
| Escuela de Kansenia | 5.433,50<br>35.790,15 | Parroquia San Fernando (Bi)<br>Ayuntamiento Getxo,<br>Anelkar Antzuola,<br>Parroquia Legazpi (Gi) |
| Azadas | 34.083,20 | Parroquias Elgoibar, Eibar,<br>Legazpi, Bergara y Bilbao. |

# INFORME ECONÓMICO 2009

## INGRESOS 2009

| | | |
|---|---|---|
| 1. | DIA DE MISIONES DIOCESANAS | 296.887,64 |
| 2. | DONATIVOS GENERALES | 289.236,24 |
| 3. | DONATIVOS ESPECIFICOS | 1.066.976,49 |
| 4. | REVISTA LOS RIOS | 54.977,92 |
| 5. | DEL FONDO REMANENTE E INTERESES | 457.183,17 |
| 6. | OTROS | 10.917,79 |

**TOTAL INGRESOS 2009 2.176.179,25**

## GASTOS 2009

| | | |
|---|---|---|
| 1. | ORDINARIOS DE PROCURA | 124.820,71 |
| 2. | EXTRAORDINARIOS, ARCHIVO | 40.685,13 |
| 3. | GASTOS CON MISIONEROS | 68.468,90 |
| 4. | SEGURIDAD SOCIAL Y SEGUROS DE VIDA | 40.598,82 |
| 5. | ENVIOS A TERRITORIOS | 479.013,90 |
| 6. | DONATIVOS ESPECIFICOS | 1.192.510,11 |
| 7. | CAMPAÑA S. JOSE | 11.085,57 |
| 8. | REVISTA LOS RIOS | 74.028,13 |
| 9. | URKIOLA | 18.885,80 |
| 10. | PUBLICACIONES | 10.537,35 |
| 11. | ANIMACION MISIONERA | 61.446,23 |
| 12. | COMPROMISOS SOLIDARIOS | 45.964,53 |
| 13. | GASTOS BANCARIOS | 2.522,47 |
| 14. | HACIENDA, IMPUESTOS Y VARIOS | 5.611,60 |

**TOTAL GASTOS 2009 2.176.179,25**








# 2009ko TXOSTENA




Barria 4 Tarteko solairua
**48005 BILBAO**
Tel. 94 401 36 99
Faxa 944 013698
E-maila: misiobi@arrakis.es

Vicente Goikoetxea, 5 - 3º
**01008 VITORIA-GASTEIZ**
Tel. 945 13 08 57
Faxa 945 138094
E-maila: misiovit@arrakis.es

Legazpi 1 – 3. ezk.
**20004 DONOSTIA**
Tel. 943 42 77 54
Faxa 943 431048
E-maila: misiodon@arrakis.es

MMDDVV

**elizbarrutietako misioak**
misiones diocesanas vascas

**www.misioak.org**





# ELIZEN ARTEKO LANKIDETZA

**Krisialdia munduko eskualde guztietara zabaldu den honetan, hegoaldeko herrialdeetan –zehazki Angolan eta Ekuadorren, Euskal Misiolari Taldeak diharduen lekuetan–, krisian luzaro bizi, eta orain, gainera, egoera larriagotu eta krisiak gero eta pertsona zein familia gehiagori eragiten dio. Eta hantxe jarraitzen dute eta jarraitu nahi dute misiolariek mundu honetako baztertuekin fedea eta itxaropena elkarbana-tzen.**

## EKUADOR

Pasa den 2009. urtea misioen etorkizunari buruzko hausnarketak markatu zuen, Euskadiko gotzainen dokumentu honetan oinarritu zenak: "Elizbarrutiaren misioak, Ekuadorren. 2008ko Plana". Gaur egun, El Oro eta Los Ríos probintzieetara gomendatutako 7 parrokietan dihardugu lanean.

Baseko eliz elkarteek, parrokiako taldeek, katekistek eta abarrek bere gain hartu dute zeregin pastoralen nahiz garapen-proiektuen ardura –eurak izanik prozesu horren subjektu aktiboak–. Aurten, are tinkoago aritu dira prozesu horretan.

Urriko biltzarraren ostean, Ekuadorreko misiolariek beren funtsezko hautuak berretsi dituzte, aurrera egiteko beharrezkotzat hartzen baitituzte. Hauexek dira hautu horiek: behartsuen eta Baseko Eliz Elkarteen aldeko hautua; taldeko bizimodua eta lana, gertutasuna, lurraldetasuna eta elizbarrutiko egitasmo pastoralekiko koordinazioa. Biltzar horretan, Gotzain Ordezkariak Javi Martínez de Bujanda izendatu zuen Euskal Taldearen koordinatzaile berritzat 2011. urtera bitartean. Horrenbestez, Martínez de Bujandak José Mari Garmendia ordezkatu zuen.

## ANGOLA

Gure misiolarientzat aurtengoa Luandako elizbarrutiko misioa zehazteko urtea izan da. Horretan lagundu zien Miguel eta Mario gotzain jaunek, uztailean bertara egindako bisitan. Misiolariekin, mojekin eta parrokiako elkarteekin batera, etorkizunerako erabakigarriak izango diren neurriak zehaztu zituzten: batetik, Lanbide Heziketako Zentroa ixtea erabaki zuten –zentroa 15 urtez egon da irekita estatuko inolako laguntzarik jaso gabe, eta horixe da, hain zuzen, ixteko arrazoi nagusia–; bestetik, epe labur eta ertainerako, hainbat neurri ezarri dira, karga ekonomikoak murrizteko, parrokiaren autonomia areagotzeko eta misiolarien taldea handitzeko. Azken horri buruz, taldean Vianako elizbarruti berriko apaizgaiak eta apaiz gazteak sartuko dira; hain zuzen, egun elizbarruti horretako kide gara, Luandako artxidiozesitik segregatu ondoren.

## EUSKADI

2009. urtea hitz batez laburtzeko, hainbat ikuspuntutatik gauza bera esan dezakegu: "urtemugen urtea" izan da; izan ere, batetik, Elizbarrutiko Misioen 60. urteurrena ospatu dugu, eta bestetik, Afrikako Elizbarrutiko Misioen 50. urteurrena. Atzera begiratu eta arrakastei eta huts egiteei erreparatu ondoren, une aproposa da aurrera begiratzeko itxaropenaz eta fedez beteta.

Halaber, zera nabarmendu nahi dugu: pasa den 2009. urtean, Bilboko Misioen Ordezkaritzaren egoitzak lekuz aldatu zuela, eta orain helbide honetan dago: Barria eraikina, Plaza Berria, 4, tarteko solairua. Harremanetarako gainerako datuak ez dira aldatu.

## 2009KO SAN JOSE KANPAINA ETA HEGOALDEKO AHOTSAK

"HAY FUTURO, ESTÁ EN NUESTRAS MANOS. GEROA GURE ESKU DAGO". Pasa den urteko goiburuak itxaropena izateko eskatu zigun. Elizbarrutietako Misioen 60. urtemugaren inguruan eman zen aditzera. Ospakizun horretan elizbarruti arteko misio taldeek hartu zuten parte. 2009ko martxoaren 7an ospatu zen Gasteizko Elizbarrutiko Apaiztegian, eta bertan, Elizbarrutietako Misioen jarraipenari buruzko etorkizunerako helburu eta ildoak zehaztu ziren.

Martxoan, Hegoaldeko Ahotsen presentzia, izatea eta egotea zabaldu da. Haien komunitateetan egiten duten lanaren berri eman ziguten. Solidaritate-proiektuei laguntza ematen dieten taldeei adore eman zieten. Komunitateari buruz jardun zuten, horri buruz eztabaidatu eta zeinen garrantzitsua den ulertarazi ziguten.

Haien bizipenek indarra eman digute gurean Eliza-komunitateak eraikitzen jarraitzeko, fedea eta bizitza elkarbanatzen duten taldeak sortzeko; komunitate irekiak, abegitsuak eta partizipatiboak; Jainkoaren Hitzari jarraitzeko; hango eta hemengo behartsuak hartzeko; hango nahiz hemengo komunitate eta taldeekin koordinatzeko.

Bilboko eta Donostiako elizbarrutietan, Hegoaldeko Ahotsak taldea hartu ala ez pentsatu, eta aurten, haien parte-hartzea ez izateko erabakia hartu zen. Aurten, Ekuadorreko Hegoaldeko Ahotsak taldeak baino ezin izan zuen etorri.

## SENIDETZEAK

Solidaritatearen eta Senidetzearen bidean jarraitzen dugu, betiere kontuan hartuta hemengo eta hango beharrak. Gure komunitateetatik loturak ezarriko dituzten pertsonak bidaltzen jarraitzen dugu. Aurten, talde hauetako kideek hartu dute parte misioan: Huaquillasen, Sansomendiko misio taldeko kideek; Palenquen, Arabako Lautadakoek, Begoñazpi Ikastolakoek eta Bilboko Irakasleen Elizbarrutiko Eskolakoek; eta Arenillasen, Ibarrekolanda-Bilbokoek. Era berean, Cafetaleko aurrezki- eta kreditu-kooperatibari laguntza profesionala ematen jarraitzen dugu.

## UDAKO ESPERIENTZIAK

Udan, esperientzia asko izan dira eta horiei esker, bultzada handia eman zaie gazte nahiz helduei misioak egite aldera. Guztiek aldez aurretik ordezkaritza bakoitzak proposatutako prestakuntza egin behar dute: Bizkaian eta Araban, Iparra-Hegoa ikastaroa; eta Gipuzkoan, Lankidetza eta Garapena ikastaroa.

Guztira, udako esperientzia horietan, Bizkaiko 11 pertsonak hartu dute parte (Chimborazo eta Los Ríos-en, Ekuador); Arabako 6k (Los Ríos, Chimborazo eta El Oro-n, Ekuador); eta Gipuzkoako 12k (horietatik 6k Ekuadorren). Jarduera ugari egin dira: misioak, gazteen talde hasiberriei laguntzea, unidad educativa popular delakoarekin elkarlanean aritzea, eskola-laguntza... Udako esperientzia horien ondorioz Misioen inguruko talde hauek sortu dira: boluntarioak; Kidenda; sentsibilizazio-taldea; laguntzaileen mahaia; eta misio taldeak eta parrokiako misioa suspertzeko laguntza.









# MISIO SUSPERKETA

## MISIO TALDEAK

Misioen ordezkaritzatik koordinatzen dira, orain arte bezala. Aurten, nabarmentzekoa da martxoaren 7an egindako bilera; izan ere, misio- eta solidaritate-taldeen arteko koordinazioa hobetzeko erabakigarria izan zen –elizbarrutiko koordinazioari eta elizbarruti arteko koordinazioari dagokienez–. Bileran esandakoak taldeei adierazi zitzaien, baita helburuak eta metodologia ere. Helburu nagusia hauxe da: **"elizbarrutiarteko koordinazio-erakundea sortzen laguntzea, elizaren parte izan behar duena eta solidaritate-elkarte txikiak dituena."**

Horretarako, elizbarruti arteko bigarren bilera 2010eko otsailaren 27an ospatuko da Urkiolan.

Bestalde, Bizkaian, Carlos eta Ligia gurera etorri zirela eta, parada paregabea zen udako esperientzietan eta Ekuadorreko misioan parte hartu zutenen topaketa egiteko. Misio-prozesu horretan parte hartzeko gogo handia duen talde bat sortu da. Halaber, Ligiak antolatutako tailerraren ondorioz, bio-osasunerako talde bat ere sortu zen. Bi talde horiek noizean behin biltzen jarraitzen dute.

Gipuzkoan, zenbait taldek indarra galdu dutenez, misio susperketakook ahaleginak egiten ari gara parrokien arteko koordinazioa eta eskualdeetako koordinazioak sendotzeko; esaterako, Egian, Lasarten, Ordizian eta Zumarragan. Bestalde, elizbarrutiko haurren idazkaritzarekin batera, pasa den martxoaren 28an haur misiolarien topaketa ospatu zen Urnietan eta 500 haur bertaratu ziren.

Araban, zera nabarmendu nahi dugu: Ebanjelizaziorako Elizbarrutiko Plan berria. Plan horren helburua da "gure kristau elkarteak ebanjelikoki berritzea" eta jadanik aurtengo ikasturtearen gidari da, eta halaxe izaten jarraituko du datorren urteotan. Uste dugu misio taldeek plan horri izugarri lagunduko diotela.

## PRESTAKUNTZA

Araban, 6 pertsonak hartu dute parte Iparra-Hegoa ikastaroan. Hamabost egunetik behin, etengabeko prestakuntzako taldea biltzen da; talde horri "misio-taldea" esaten diogu eta aurreko urteetan Iparra-Hegoa ikastaroa egin zutenek osatzen dute. Taldekideek gogotsu laguntzen dute boluntario gisa hainbat misiotan. Gehienek parrokiako konpromisoak ditu. Bestalde, ikasturte amaieran (urrian) egindako prestakuntza espezifikoa azpimarratu nahi dugu: Maria Jesus Olartek jaso zuen, Ekuadorreko Arenillaseko misiora joan zenak.

Bilbon, aurten lehenbizikoz misiolarigaiek egindako prestakuntzaren azken zatiko prozesua nabarmendu nahi dugu.

Elizbarrutiko Misioen eta Bilboko elizbarrutiko Teologia eta Pastoraltza Institutuaren arteko esparru-akordioari esker erabaki ziren prestakuntza horren diseinua, edukiak, metodologia eta laguntzaileak. Aurtengo ere, Iparra-Hegoa ikastaroa abian jarri zen; 8 pertsona bertaratu ziren, eta Irakasleen elizbarrutiko Eskolara, 20 pertsona inguru. Era berean, hezkuntza-taldeari laguntzen jarraitzen dugu, Euskalerriko Eskautak mugimenduaren gerapena dela bide.

Gipuzkoan, hainbat erakunderekin batera, Lankidetza eta Garapena ikastaroa antolatu da, eta 21 pertsonak hartu dute parte bertan. Ikastaroa urte hasieran eman zen (2009ko urtarriletik martxora).

## ARGITALPENAK

- “Los pobres nos evangelizan”. Iñaki Cámararen oroimenari buruzko lekukoak biltzen dituen liburua.
- “África más cerca”. Ruanda eta Kongoko 1.200 argazki baino gehiago biltzen dituen DVDa. Juan Ramón Etxebarria.
- “Documentos del encuentro conmemorativo de los 60 años de Misiones Diocesanas Vascas”

## LOS RÍOS ALDIZKARIA

2009an, aldizkariaren ale hauek argitaratu dira: 227, 228, 229, 230. Misioen ibilbideaz dihardute: misioen 60. urteurrenaren eta Afrikako misioen 50. urteurrenaren ospakizuna; Afrika, Latinoamerika eta Euskadiren artean eraikitako zubiak; begiradak munduari; jende arruntarekin egindako elkarrizketak; interes handiko gaiak (immigrazioa, elkarlankidetza-proiektuak, etab.).

Aldizkaria eguneratzeko eta errealitateari gerturatzeko luzatutako galdera-sorta zela bide, azpimarratzekoak dira irakurleek bidalitako iradokizunak. Mila esker, berriz ere, zuen laguntzagatik.

## WEB-ORRIA

Maiatzaren 1az geroztik, web-orri berria dugu: **www.misioak.org**. Horri esker, azken berriak eguneratzeko aukera dugu, bai eta beste arlo eta konpromisoen berri izateko ere.

## URKIOLA

Gure misioen elizbarruti arteko zentroa; maiatzak bateko misiolarien urteko topaketaren egoitza; hiru prokuretako arduradunen bileragunea; eta Ekuadorretik eta Angolatik bueltan datozenak eta hara doazenak nahitaez joan behar dute Urkiolara.

“Lagunetxe” egoitzaren kudeaketa enpresa baten esku utzi da, eta hark Elizbarrutiko Misioen artxibategia Gasteizko Elizbarrutiko artxibategira eramatea erabaki du. Aurten, dokumentu guztiak sistematizatzeko eta digitalizatzeko lana amaitu dugu, eta horri esker, bizirik dirauen misioen historioren berri edonork izan dezake.











# KONPROMISO SOLIDARIOAK

## BIDEZKO MERKATARITZA

Gipuzkoan, lurraldeko hainbat taldek haien egunerokotasunean bidezko merkataritzaren alde egitea erabaki dute.

Gasteizen, bidezko merkataritzaren aldeko denden nazioarteko eguna antolatzen duen partzuergoan, misioen ordezkaritza gisa parte hartzen jarraitu dugu. Egun hori probintziako hainbat herritan ospatzen da eta helburua da bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua bultzatzea. 2009an, ekologia eta krisia izan ziren nagusi: “Big Bang!! Bidezko Merkataritza ezagutarazi!”.

Bizkaian, Caritas, Alboan eta Misioak taldeek sortutako Kidenda proiektuak lanean jarraitzen du, Iparraren eta Hegoaren arteko harremanak berdintasunean oinarri daitezen. Proiektu hori gazteen eta helduen konpromisoen bilgune bihurtu da, eta gero eta interes eta jende gehiago biltzen ditu.

## BANKU ETIKOA

Elizbarrutiko Misioek proiektu hori bultzatzen jarraitzen dugu, bazkide sortzaileak garen aldetik. Halaber, lurralde bakoitzean, proiektuaren berri ematen jarraitzen dugu, bai eta sentsibilizatzen eta parte-hartzea sustatzen ere. Gipuzkoan, elizbarrutiko batzordeak –misio-taldeen sarea baliatuz– hainbat hitzaldi eman ditu. Irailaz geroztik, Ordizian sukurtsal bat irekitzen dugu astean behin.

## GGKEREN KOORDINAKUNDEA

Pasa den urtean, GGKEren koordinakundean parte hartu genuen hiru lurraldeetan; batik bat, “Zero Probezia” kanpainaren sentsibilitate-jardueretan, pobrezia erabat kentzeko nazioarteko egunean antolatzen direnak (urriaren 17an).

Halaber, azpimarratu nahi dugu Gasteizko Elizbarrutiko Misioak GGKEren Koordinakundearen Arabako Ordezkari izateko ardura hartu du datorren urte eta erdirako.

## AFRIKAREN ALDEKO TALDEA

Misio Ordezkaritza bezala, Afrikaren aldeko Taldearen –Euskal Herriko GGKE partzuergoaren– bileretan parte hartzen jarraitu dugu. Afrikaren aldeko interes bera dugu, eta egunetik egunera konfiantza handiagoa eta sendoagoa egiten ari da. Pasa den urtean, zenbait lan-talde sortu eta Afrika ezagutzeko hainbat jarduera egin ziren.

## AFRIKARI BURUZKO ASTEA

Hirugarren urtez, Afrikari buruzko astean parte hartu dugu. Ekitaldia Baketik eta TAU fundazioak antolatu zuten. Arantzazun ospatu zen, ekainaren 8tik 13ra, eta bertan, Afrikarekiko solidaritateari buruzko kontraesanak eta alternatibak izan ziren eztabaidagai, eta Afrikandugu proposamena luzatu zen, kooperazio-senidetzeak bultzatzeko eta zabaltzeko.

## IMMIGRAZIOA

Arabako Misioen Ordezkaritza, egun, Migrazioen Idazkaritzari laguntzeko batzorde batean parte hartzen ari da. Zenbait misio taldek errealitate hori onartu eta prestakuntza zein konpromisoa areagotuko dute. Halaber, Migrazioen Idazkaritzak antolatutako hainbat jardueratan parte hartu dute.



# 2009an LANEAN JARDUN DUTEN MISIOLARIAK

## ANGOLA

Andoni Illarramendi eta Luis Fernando Corcuera (Luanda), Luis Mª eta Carlos Pérez de Onraita (Malange)

## KONGO

Xabier Goikouria

## EKUADOR

María Ángeles Domercq (Guayaquil), Estíbaliz Izagirre (Riobamba), Mireya Lekerikabeaskoa, Josu López Villalba eta María Jesús Olarte (Arenillas), Pilar Gauna, Elena Fernández del Castillo eta Joaquín Rodríguez (Huaquillas), José Mari Garmendia, Virginia Ortiz de Barrón eta Gotzon Pérez de Mendiola (Santa Rosa), Eduardo Aguirre eta Antonio Madinabeitia (Cafetal-Babahoyo), Teresa Dacosta eta Benjamín Respaldiza (Palenque), Germán Alzueta eta Martín Areta (Vinces), Javier Martínez de Bujanda, Izaskun Azurmendi eta Paulino Ordax (Baba).









# EKUADOR | txosten

| PROIEKTUA | KOPURUA | EMAILEAK |
|---|---|---|
| **BABA** | | |
| “Piladora” proiektuaren zabalkuntza | 10.500,00 | Ibarratik Misio taldea |
| Biltegiaren itxitura | 6.000,00 | VI, Bizkaiako S.A. |
| COAC kooperatiba | 2.000,00 | Pobes (Araba) |
| “Pueblo Solidario” | 5.702,38 | MMDDVV |
| **PALENQUE** | | |
| Maculillo errekatxoaren ekoizpen eta iraupenerako babesa | 3.185,00<br>15.200,00 | Zaramagako erreferentzi taldea (Gasteiz)<br>Lautada aldea (Araba) |
| Lanbide eskola –Lanbideen ikaskuntza | 7.533,00<br>4.250,00 | Olarizuko pastoral barrutia (Vi)<br>Artziniegako emakume taldea (Araba) |
| Fátima eskola | 5.000,00<br>1.445,00<br>3.000,00 | Begoñazpi Ikastola (Bilbo)<br>San Pedro parrokia (Deustu)<br>Andra Mari parrokia (Durango) |
| Putzuen eraikuntza | 30.000,00 | Begoñako parrokia (Bi) |
| Eskualdeko garapena | 18.550,00 | Partikularrak (Bilbo) |
| Osasun sustatzaileak | 4.000,00 | Arrigorriagako Lagunkide (Bi) |
| Manuel Sesma ospitalea | 46.500,00 | Zarauzko Udala |
| **VINCES** | | |
| Ekografoa | 24.000,00 | Zarauzko Udala |
| Errehabilitazio zentroa | 821,34 | MMDDVV |
| Bekak | 1.247,79 | MMDDVV |
| Irakasleentzako laguntza | 4.741,59 | MMDDVV |
| **MATA DE CACAO** | | |
| Haurdunak eta elikatu gabeak | 1.500,00<br>3.565,00<br>1.420,00 | Zigoitiako parrokiak (Araba)<br>Santa Teresa parrokia (Vi)<br>Amurrioko parrokiak (Araba) |
| Jantokia eta ezinduen zentroa | 2.370,00<br>700,00 | Laudioko parrokiak (Araba)<br>Aguraingo parrokiak (Araba) |
| Aurrezki eta Kreditu-Kooperatiba | 4.820,00 | Partikularrak (Bilbo) |

| PROIEKTUA | KOPURUA |
|---|---|
| **EL CAFETAL** | |
| Hezkuntza eta bekak | 6.060,81 |
| FUNIQUE – haur bereziak eta arriskuan daudenak | 6.000,00<br>704,75<br>4.401,00 |
| Etxebizitzaren berritzea | 2.541,79 |
| **LA VENUS** | |
| Emakumeen trebakuntza eta hezkuntza | 2.167,00 |
| Kartzelako ekintzak | 770,24 |
| Babesleak | 17.085,00 |
| **BABAHOYO** | |
| Hezkuntza eta osasun arreta | 6.489,26 |
| Kartzelako ekintzak | 2.310,71 |
| Caritas-erako laguntza | 3.837,79 |
| Apaizgaiak | 3.025,00 |
| Giza Eskubideak | 4.763,36 |
| **QUEVEDO** | |
| Fátima eskola | 7.800,00 |
| Osasun zentroa | 3.000,00 |





| EMAILEAK |
|---|
| |
| Lantarongo Udala (Araba) |
| Bilboko Bizian Gora<br>Errosarioko Andre M. par. (Bi)<br>MMDDVV |
| MMDDVV |
| |
| MMDDVV |
| MMDDVV |
| Familia Santua, Buradon Gatzaga eta Aguraingo parrokiak (Araba) |
| |
| MMDDVV |
| MMDDVV |
| Gasteizko Caritas |
| Algortako San Nikolas parr. (Bi) |
| Ermuako Udala |
| |
| Begoñako parrokiako misio taldea eta partikularrak (Bilbo) |
| Begoñako parrokiako misio taldea (Bi) |

| PROIEKTUA | KOPURUA | EMAILEAK |
|---|---|---|
| **GUAYAQUIL** | | |
| A.E.I. ospitalea | 6.790,70 | Joan Santuak parrokiako misio taldea (Bi) |
| **SANTA ROSA** | | |
| Neska-mutilentzako bekak | 8.794,86 | Gasteizko Caritas |
| Etxebizitzarako aukera eta hobekuntza | 5.585,27<br>1.095,00 | Amurrioko parrokiak (Araba)<br>Partikularrak (Gasteiz) |
| Botikinen sustatzaileen hezkuntza | 1.264,73 | MMDDVV |
| **HUAQUILLAS** | | |
| Medikuntza Naturalerako laguntza | 770,24 | MMDDVV |
| Elkarteen etxea | 3.800,00 | Koroatzea parrokia (Gasteiz) |
| **ARENILLAS** | | |
| Eskualdeko garapena | 8.600,00<br>751,80 | Karrantzako parrokia eta partikularrak (Bilbo)<br>Armiñongo Udala eta parrokia |
| **PACCHA** | | |
| Parrokiarako laguntza | 2.000,00 | San Pío X Parrokia (Donostia) |
| **MANABÍ** | | |
| Bahía de Caráquez - S. Vicente –ko jantokia | 14.000,00 | Abandoko San Bizente parrokia |





# ANGOLA txosten

| PROIEKTUA | KOPURUA | EMAILEAK |
|---|---|---|
| **LUANDA** | | |
| Lehenengo arreta – Caritas | 13.555,15<br>15.172,79 | Gasteizko Caritas<br>MMDDVV |
| GAM taldea (HIESA) | 4.600,03 | Andra Mari Errukarrien<br>Ama parrokia (Vi) |
| Unibertsitaterako Bekak | 9.556,73 | MMDDVV |
| "Santa Marta" Ikasketetarako-bekak | 5.650,00<br>9.000,00<br>300,00<br>2.141,00<br>500,00<br>2.000,00<br>3.225,00<br>4.385,00<br>39.376,71 | Arabar Errioxako parrokiak<br>Familia Santua parrokia (Vi)<br>Udako Iturriak<br>Electra Vitoria S. A.<br>"La Caixa" Gizarte-Ekintza<br>La Peñako parrokia (Bi)<br>Partikularrak (Gasteiz)<br>Nazareth parrokia (Portugalete)<br>MMDDVV |
| Bokazioak | 2.500,00<br>2.000,00<br>1.858,00 | Gasteizko partikularra<br>Begoñako misio taldea (Bi)<br>Partikularrak (Bilbo) |
| "5ª Avenida"-ko Liburutegia | 23.626,03 | MMDDVV |
| **MALANJE** | | |
| Caritas Malanje | 922,50 | Gasteizko Caritas |



# RWANDA txosten

| PROIEKTUA | KOPURUA | EMAILEAK |
|---|---|---|
| Ur proiektua | 2.072,13 | Lazkao eta Zarauzko Udala |
| Giharako amaetxea | 1.800,00 | Partikularrak (Gipuzkoa) |
| Gihara, Kayenzi eta Muginako nutrizio etxeak | 27.000,00 | Partikularrak (Gipuzkoa) |
| Gihara eta Kigese eskolak | 33.349,00<br>11.600,00 | Lazkaoko Udala<br>Itsasondo parr. eta part. (Gi) |
| Umezurtzak | 5.250,00 | Partikularrak (Gipuzkoa) |

# R.D. CONGO txosten

| PROIEKTUA | KOPURUA | EMAILEAK |
|---|---|---|
| Bunkeya | 6.000,00 | Abandoko San Bizente parr. (Bi) |
| Panda Likasi eta Katangako ezinduak | 30.000,00 | Erandioko Udala (Bi) |
| Xabier Goikouria | 15.598,00 | Arakaldoko Udala eta Partikularrak (Bilbo) |
| Katangako ezinduak | 1.100,00 | Santurtziko parrokia (Bi) |
| Likasi | 7.666,00 | Salbatore eta San Fernando parrokiak (Bi) |
| Mufunga | 2.667,00 | Arangoiti eta San Fernando parrokiak (Bi) |
| Kanseniako eskola | 5.433,50<br>35.790,15 | San Fernando parrokia, Getxoko Udala (Bi), Antzuolako Anelkar, Legazpiko parrokia (Gi) |
| Aitzurrak | 34.083,20 | Elgoibar, Eibar, Legazpi, Bergara eta Bilboko parrokiak |

# TXOSTEN EKONÓMIKOA

## SARRERAK 2009

| | | |
|---|---|---|
| 1. | ELIZBARRUTIKO MISIOEN EGUNA | 296.887,64 |
| 2. | EMAITZA OROKORRAK | 289.236,24 |
| 3. | EMAITZA ESPEZIFIKOAK | 1.066.976,49 |
| 4. | "LOS RIOS" ALDIZKARIA | 54.977,92 |
| 5. | GELDIKIN FUNTSA ETA INTERESAK | 457.183,17 |
| 6. | BESTE HAINBAT | 10.917,79 |

**SARRERAK GUZTIRA 2.176.179,25**

## GASTUAK 2009

| | | |
|---|---|---|
| 1. | PROKURAKO OHIKOAK | 124.820,71 |
| 2. | EZOHIKOAK, ARTXIBOA | 40.685,13 |
| 3. | GASTUAK MISIOLARIEKIN | 68.468,90 |
| 4. | GIZARTE-SEGURANTZA ETA BIZI ASEGURUA | 40.598,82 |
| 5. | BIDALKETAK LURRALDEETARA | 479.013,90 |
| 6. | EMAITZA ESPEZIFIKOAK | 1.192.510,11 |
| 7. | SAN JOSE KANPAINA | 11.085,57 |
| 8. | "LOS RÍOS" ALDIZKARIA | 74.028,13 |
| 9. | URKIOLA | 18.885,80 |
| 10. | ARGITALPENAK | 10.537,35 |
| 11. | MISIO SUSPERKETA | 61.446,23 |
| 12. | ELKARTASUN SAREAK | 45.964,53 |
| 13. | BANKU GASTUAK | 2.522,47 |
| 14. | OGASUNA, ZERGAK ETA BESTE BATZU | 5.611,60 |

**GASTUAK GUZTIRA 2.176.179,25**

SARRERAK 2009



GASTUAK 2009














